

SE LOGER • HERRIAN BIZI • LOTJÀ'S



Un logement accessible pour tous les foyers

Gure jendartearen funtsezko eskubidea da kalitatezko etxebizitza duin batez gozatzea gure bizitzako etapa guzietan zehar. Etxebizitza gure paktu sozialaren zutabea baita, gure proiektuan azkarki eta nahikeria handienarekin errotua da!

Gaur egun, etxebizitzaren krisia, sekula gertatu gabeko hiper-aktibitate batek larriagoturik, Baionan ere pairatzen dugu. 2023an*, etxebizitza sozial bat eskatzen zuten pertsonen kopurua 4400era heltzen da, igurikatze epea 28 hilabetekoa da, eta eskaintzen kopurua 15 aldiz apalagoa da eskaerena baino. Presio hau areagotzen dute, gaur egun eskas diren etxebizitza ttipiakoak eta egokiagoak (T1 eta T2*) eskatzen dituzten pertsona bakartuen emendatzeak edo biztanle gero eta zaharragoek.

Etxebizitza herriko etxearen lehentasuna bilakarazi nahi dugu eta honen esku diren tresna guziak erabiltzen engaiatzen gara, denek etxebizitza duin bat eskura dezaten.

**Iturria: Euskal Herriko Bizitegiaren Behatokia / Atlantikoa & Pirinioak hirigintza agentzia*

Gure proposamenak:

a. Masiboki sostengatu bizitegi sozialaren alde inbestituz urtean.

Biztanleriaren %70a hautagarria da alokairuzko etxebizitza sozial bat lortzeko, eta beti gora doan etxebizitza eskaerari behar desberdinei egokituz erantzun nahi diogu, eta berezikiago pertsona bakartuena, familia (guraso bakarrekoak besteak beste), aktibo gazteena eta prekarioagoenak. Beherago agertzen diren neurri batzuk HTP-an sartuak izan beharko dira.

- Urte guzietan diru kopuru handia atxiki baionar guziekin behar dituzten etxebizitzak ekoiztu eta berritzeko (lur funtsa, laguntzak, arrandan emaile sozialei bermea, herriko etxebizitzak erosteko...).
- Ahal bezainbat Alokairuzko Etxebizitza Sozial sortu Herrian Bizi-Se loger au Pays plataformak eman gomendioei jarraikiz.
- 20 etxebizitza eta + sortzeko proiektu berrietan etxebizitza sozialen zatia %60ra igo. BRS 1erako alokairu sozialeko 2 etxebizitzako proportzioa sartu proiektu horietan.
- Etxebizitza mistotasuna lehenetsi auzotegi bakoitzean, ekoizteko obligazioaren muga 3 etxebizitza sozialera gutienez jaitziaz.

- Biztanleak proiektuan sarraraziz, HLM egoitzen zaharberritzea zalutu, hauetako $\frac{2}{3}$ duela 40 urte baino gehiago eraikiak izan baitira. Elkarrekin burutu eraikitze honek bermatzen du zaharberritzeek erantzuten dietela zinezko beharrei eta tokiko enpleguak sortzen dituztela.
- Mota orotariko bizitegi parte-hartzaile proiektu berritzaileak garatu, kooperatiba motakoak besteak beste, belaunaldi arteko proiektu inklusiboei eta adineko pertsonentzako etxe partekatuei arreta berezia ekarri.
- Eskaera berriei hobeki erantzun, T1/T2 arloan bereziki: pertsona bakartuak, guraso bakarreko familiak, gazte aktiboak, adineko pertsonak, prekarioak, aldikako zaintzan dauden familia bereixiak...
- Adineko pertsona autonomoak aterpetzeko herriko egoitza berria eraiki.
- Unibertsitateko ikasleentzako etxebizitza berriak eraiki

b. Urgentziazko aterpetze lekuak molde esanguratsuan emendatu.

Elkartasuna baitugu xede gure ekintzan, indar boluntarista eginen dugu urgentziazko aterpetze lekuak molde esanguratsuan emendatzeko, eraginkorrak izateko aterpetze gabeziaren aurkako borrokan eta guziei berehalako geriza duina bermatzeko.

- Aterpetze aterabideak eskaintzeko jarduten duten egitura eta elkarteak masiboki lagundu.
- Eguneko jarraipen soziala azkartu.
- Trantsizioan dauden lur zati libreetan plantatuak izanen diren bizitegi arin eta mugikorrak esperimentatu.
- CCAS/LHSZ baitako helbideratze administratiboaren onartzeko irizpideak berriz ikusi.
- Hendaia Hiriak egin bezala 7/7 egunez irekia den hatu-biltegia egitura sozial bati lotua sortu.
- Kanporatzeen prebentziorako herriko zaintza segurtatu ADIL, CAF eta ordaindu gabeiei ekarri laguntza goiztiarraren alde jarduten duten elkarteekin loturan.

c. %100 bizitegi nagusiko kopurua eskatu beharretsi programa berri guzietan eta etxegintza espekulazioaren aurka borrokatzeko.

Etxebizitza beste guzien aitzinetik eguneroko bizitzarako funtsezko ontasuna dela, eta ez finantza salgai soil, gogoan harturik, justizia sozial gehiago ekartzeko erregulazio neurri zorrotzak plantan ezarriko ditugu.

- Alokairuzko Bizitegi Soziala eta Alokairu Erreal Solidarioa etxegintza espekulazioaren aurka borrokatzeko funtsezko tresna gisa hedatu, lur funtsa molde iraunkorrean merkatutik kentzeko erosteko prezio eskuragarriak bermatuz, gaur egun merkatutik baztertuak diren familiak etxebizitza bat erosteko aukera ukan dezaten.
- Alokairuen arautzea atxiki herrian.
- %100 bizitzaile iraunkor eskatu eta ikuskatu baimendu bizitegi berri guzietan Baionan.
- Deklaratuak ez diren mublaturik ikuskatu eta zergapetu.
- Erabilera aldaketen %100 ikuskatu eta baimendu gaur eguneko kopurua 90 egunera apalarazi (ECHANIZ legea), bai eta gerta daitezkeen iruzurreko alokairua eta bizitegi nagusi faltak aldi berean.

- Bigarren bizitegiatarako Bizitegi zergaren goititza %60tan atxiki.

d. Etxebizitza hutsen aurka borrokatu bizitegi multzo pribatua erabiliz.

Haiei jabetza hutsak berriz merkaturatzeko lagunduko ditugu jabeak. Lurren artifizioa apalaraziz, etxebizitza eskaintza azkartuko dugu desmarta honen bitartez.

- 2026an, diagnostiko misio bat abiatu zinez hutsak diren etxebizitzak zerrendatzeko eta zergatiak zehazteko.
- 2027an, jabeekin harremanetan sartu haiei bizitegiak zaharberritu eta/edo berriz aloka ditzaten.
- Merkaturatze berriz sartzeko laguntzak hobeki segitu hitzarmen sozial edo biziki sozialaren bitartez haiei etxebizitza alokatzen duten jabeentzat.
- Hutsak diren etxebizitzetarako bizitegi zerga (THLV/HEBZ) herrian aplikatu hutsak diren bizitegiak merkaturatze berriz sartzeko.
- Herriko Ordaingabeko alokairu berme bat (GLI/OAB) sortu, ordainduak ez diren alokairuak eta/edo baimentze sozial edo biziki sozial batera buruz bideratu etxebizitzetan egin kalteak ordaintzeko.
- Hutsa den etxebizitza bat berriz alokatzeko laguntzei buruzko sentsibilizatzeko kanpaina handia abiatu EHE-ko lurralde osoan.
- Nahitazko perimetroa finkatu, eraikin zaharren erortzeko arriskuak aitzin-ikustea eta honen gauzatzeko ezintasunean dauden jabeekideei laguntzea ahalbidetuko dituzten egiturazko diagnostikoak egiteko.

e. Hobeki zaharberritu, hobeki eraiki, baldintza hobetan bizi

Etxebizitza beharrei erantzutea baitezpadakoa bada ere, ezin da gehiago lehen bezala eraiki baina bai sozial, ingurumen eta demokrazia arloko zorrotasun berriak sarrarazi.

- Hiri barne historikoa aldaketa klimatikoari egokitzeko baldintzak sortu, berina bikoitza bezala, ABF-ekin lankidego hertsian arituz.
- Autoebaluazioa eskatu, baimen administratibo bat duen eraikin urriaren hitzarmeneko printzipioei begira, Baionako hitzarmen bioklimatikoarekin osagarritasunean.
- Antolaketa operazio handietarako profesionalak eta biztanleak sarrarazten dituzten dispositibo parte-hartzaileak sortu.
- Prekarietate energetikoa apalarazteko familiei ekarri laguntza dispositibo guztiak erabili.
- Etxebizitzaren Batzorde Iraunkorra sortu (hautetsiak, biztanleak, arrandan emaileak, elkarteak, LHZ) politika publikoaren jarraipena eta balaztaketa egiteko.